


AIURRI


BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2023-10-20 / 792 ZENBAKIA / 19. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM



Zabalik da Bastero Kulturgunearen hogei urteak laburbiltzen dituen erakusketa / 2-3



Herme Gonzalez Urrietako PSE-EE alderdiko bozeramaileari elkarrizketa / 8-9

"Gaza, setiopean", Josu Perales Arretxeren iritzi-artikulua / 10

Andoaingo euskalgintzaren agerraldia, azaroaren 4ko manifestaziora deituz / 7



Txanbolin Txistulari Bandaren mende erdiko ibilbidea

Antton Jauregi eta Justo Egaña taldekideei elkarrizketa / 4-6

bertako
igogailuak | ascensores

IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ESKAINTZA ZORROTZENA

2.500 bezerok gugan dute konfiantza

943 903 450
bertako.eus

100€-tik/hileko

GENETAKO ORSTARIKO ZERBITZUA



Bastero Kulturguneko erakusketa aretora hurbiltzen den bisitariari ibilbide kronologikoa egiteko gonbitea luzatzen zaio. Arkitektura aldetik, bestalde, eraikinaren plano eta irudi interesgarriak aurki daitezke. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urria Basteroren hilabetea izaten ari da, Andoainen. Hogei urteko ibilbidea oparoa izan da. Gehien-gehienek programazioari eta kultur eskaintzari erreparatuko diote, memoria egiten hasita. Gogoan iltzaturako hitzorduak etorriko zaizkie burura. Baina Basteroren ekarpena askotarikoa izan da. Arkitekturaren ikuspegitik aztertuta, erreferentziatzeko eraikina da Gipuzkoan. Urteen poderioz handituko dena, gainera.

Programazioari lotuta, erreferentziatzeko bilakatu da Aiztondon eta Donostialdean. Rock jaialdiari lotutako kontzertu zikloak, piano jaialdia, IkusZirkus zikloa... Kanpokoentzat ere erakargarria da Basteroko programazioa. Eta, zer esanik ez, Andoaindarrentzat. Herriko zineman edo eskolako areto nagusi batean kultura kontsumi-

Urteurrena ospatzeko erakusketa zabalik da

Astelehenean hasita, hilabetez, Bastero izango da erakusketa aretoko protagonista. Aretolari eta haren ibilbideari eskainitakoa da, Itxaso Mendiluzeren zuzendaritzapean aurrera atera dena

tzetik, Kulturgune batean egitera igaro ziren. Jauzi handia izan zen, ikusleentzat nahiz kultur eragileentzat. Izan aktore, dantzari edo musikari.

Urteurreneko ekitaldi-sorta aurrera doa, eta, egun hauetan, ibilbidea laburbiltzen duen erakusketa zabalik da. Astelehenean egin zuten aurkezpen-ekitaldia. Ikusle eta kulturzale gutxi hurbildu zen lehen egunean. Andoaindarrek hilabete osoa dute aretoan sartu eta kultur oroitzapenen erakusketan murgiltzeko.

Bilkura bilakatu zen asteleheneko irekiera-ekitaldian, Peña Ganchequi arkitektura-taldeko kideek euren hitzartean gogoan hartu zituzten Andoaingo udalletean langile izandako Jose Mari Viguera, Luis Nieva eta Garbiñe Agirre.

Era horretan, Lankidetzeta teknikoa eta solaskidetzaz pimaratu zituzten.



Marta Lasa, zinegotzia. AIURRI



Rocio Peña eta Mario Sagali, arkitektoak.



Itxaso Mendiluze, arte komisarioa. AIURRI

HOGEI URTEKO IBILBIDE KRONOLOGIKOA EGITEA ESKAINTZEN ZAIO BISITARIARI

Kulturaren aldeko Marta Lasaren hitzak

Kultura zinegotziak eta Andoaingo alkate-ordeak balioan jarri zuen Bastero. Aurkezle-lanak egitearekin batera, adierazpena egin zuen: "Urteurrenak uste baino gehiagorako eman du. Egunotan, begirada atzera bota eta garaiko argazki zaharrak, dokumentuak eta kartelak egon gara ikusten, eta ariketa polita izan da. Eraikinak hogeitaz bete ditu, eta, geroztik, kulturak gure herrian beste pisu bat, beste garrantzi bat hartu du. Ez gara nekatuko esateaz ez dugula herri bat ulertzen kulturarik gabe, kultura dela herri baten oinarri eta esentzia. Osasuntsu egoteko behar ditugu Bastero bezalako aterpeak, behar ditugu taldeak, elkarteak, eta batez ere, pertsonak".

Mario Sagali eta Rocio Peña, esker onez

Txalo artean hartu zituzten Peña Ganchegui arkitektura-taldearen izenean ekitaldira hurbildu ziren Mario Sagali eta Rocio Peña. Sagali izan zen hitza hartzen lehena: "Irekiera esperientzia zirrarragarria izan zen. Hogeitaz urte eta gero, gune berean gaudu. Emozioa eta tentsioa nagusi zen gure artean, 2003ko hartan. Gaur, aldiz, lasai asko hurbildu gara. Erakusketa egokitu duzue,

AURKEZPEN- EKITALDIA AIURRI.EUS GUNEAN IKUSGAI DAGO, BIDEOEN ATALEAN KLIK EGINDA

eta ez duzue gure laguntzarik behar izan. Pozarren gatoz, horregatik, gaurko irekiera-ekitaldira". Peñak, bere aldetik, irekiera gauzatzeko lan kolektiboa nabarmendu zuen. Bera ordezkatzeko duen enpresaz gain, aparajedorea, injenieriak, egituretan adituak, instalakuntzako teknikariak, akustikako adituak eta baita udal teknikariak ere. Peñak berak lanean urteak eman zituen, Andoainen. Baina urteen poderioz kultur kontsumitzaile bilakatu da: "Donostiatik hona etorri gara piano jaialdira, klarinete bilkuratara eta hainbat kultur ikuskizunetara. Harro egon zaitezke andoaindarrak, eraikinak askorako eman due-lako".

"ARGAZKIAK ETA OBJEKUAK" ERAKUSKETA HILABETEZ ZABALIK IZANGO DA

Itxaso Mendiluze, ikusleen parte-hartzea eskatuz

Orain hogeitaz urte atzera, lehen erakusketaren arduradun izan zen. Ikusleak, langileak, udal ordezkariak, artistak... Denen rola aintzat hartu zuen, eta segidan, erakusketa berria aurkeztu zuen: "Guztiak gara Bastero. Hortik abiatuta, hogeitaz urteko materiala laburbiltzen duen erakusketa antolatu dugu. Ibilbide kronologikoan barrena bidaia egitea proposatzen diogu bisitariari. Bidaia batean ohar asko egiten ditugu, eta erakusketa honetan antzekoa egitea eskatu nahi diogu bisitariari. *Post it* batzuk utzi ditugu bertan, eta ikusleek gogoetak partekatzera animatu nahi ditugu".

www.aiurri.eus



Urteurrena, luze eta zabal, Aiurri.eus webgunean

Albisteak, argazki-bildumak, bideoak
KLIK BAKARRERA

Hogeitaz urte, hiru aro ezberdin



Argazki zaharrek arreta berezia pizten die bisitariari. AIURRI

Bastero aurreko garaia Hogeitaz bost urte atzera, Plaza Morea eta inguruak oso bestelakoak ziren. Trafikoa, eraikinak... Paisaia eta arkitektura nabarmen aldatu dira Kale Nagusian eta Eskola kalean, hots, Bastero Kulturgunearen eremuan.



Bisitariak irekiera ekitaldiko garaiko argazkiei begira. AIURRI

Irekiera-ekitaldiko garaia Hogeitaz urte atzera, lehen ikuskizunak taularatu ziren auditorioan eta ekitaldi-aretoan. Hastapeneko ekitaldi-sorta biltzen duen eskuorria ikusgai dago erakusketan, eraikinaren barrualdeko gune eta bulegoetako argazkiekin batera.



2015ean ospatu zen Andoaingo sorreraren laugarren mendeurrena. AIURRI

Andoaindarrak 400 Askotariko mugarrak bizi izan ditu Andoain herriak, azken hamarkadetan. 2015ean, 400. urteurrenako ospakizunak antolatu ziren, eta orduko hartan ere Bastero Kulturgunek rol garrantzitsua bete zuen.



Antton Jauregi eta Justo Egaña, Egape Ikastolako musika-gelan. AIURRI

"Ikasketa ederra izan da Txanbolinen mende erdiko ibilbidea"

ANTTON JAUREGI ETA JUSTO EGAÑA URNIETAKO TXANBOLIN TXISTULARI BANDA Omenaldia antolatu du Txanbolin Txistulari Bandak, taldearen mende erdiko ibilbidea ospatzeko. Ostiraletik igandera bitarte, askotariko hitzorduak izango dira Urnietan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Orain mende erdi atera zen kalera lehen aldiz Txanbolin Txistulari Banda, Justo Egañaren ekimenez. Haurra bazen ere, taldearen hastapenak ondo baino hobeto ditu gogoan Antton Jauregik. Biak ala biak bildu ditu Aiurrik, 50 urteen errepa-soa egiteko.

Orain mende erdi pasatxo, Urnietan lur hartu zenuen zuk, Justo, Azkoitik etorrira. Zerk ekarri zintuen hona?

Justo Egaña: Elizondon (garai bateko herriko eskolan) irakasle-lanetan, eskolan zebilen bat ezagutzen nuen, Arregi. Bada, bertan jarduteko proposamena egin zidan, eta horrela iritsi nintzen herrira.

Txistuarekin banuen harremana, jada, izan ere, seminariotik igarotakoa naiz. Bertan, instrumentu bat jotzen ikasteko aukera ematen zuten. Bakoitzak nahi zuena hautatzen zuen. Nik, txistua. Orduan, pixkanaka ikasten hasi nintzen; arrastoa utzi zidan lehen irakasleak.

Hari horri tiraka, txistua erakusteko proposamena luzatu

nien Urnietako ikasleei, eta horietako batzuk instrumentua jotzen ikasteari ekin zioten. Arbel zahar batekin erakusten nien, eta kopiagailuarekin ematen nizkien partiturak ikasle guztiei.

Bada, etorrera horrekin, eta, Egaña txistu-klaseak ematen hasi zenean, egin zenuten topo bidean. Orduan, hamar urte besterik ez zituen haurra zinen zu, Antton.

Antton Jauregi: Ondo baino hobeto gogoratzen dut. Garai hartan, futbolzale amorratua nintzen, hori nuen amets. Lagunengatik iritsi nintzen ni txistua jotzen ikastera. "Uso xuria errazu" piezaren lehen zatia ederki ikasi nuela oroitzen dut eta musikarako gaitasuna nuela ikusi nuen. Hogei bat urte bete arte, ez nintzen partitura bat irakurtzeko gai izan. Bien bitartean, entzun egiten nuen musika, eta memorizatu. Harrituta zegoen Justo. Mugarri izan zen niretzat, berari esker, pisu handia hartu baitzuen musikak nire bizitzan.

J.E.: Ni ez nintzen gaur egun berak duen mailaren laurdenera ere iristen. Ez naiz sekula

txistulari ona izan. Ikasi nuena irakatsi egin nuen, besterik ez. **Esan bezala, "Uso xuria errazu" abestia izan zen ikasitako lehen pieza. Gaur egun, estimua gordetzen al diozue horri?**

A.J.: Kanturako melodia da, ez da, berez, txisturako. Nik neuk ere ikasle askori erakutsitako lehen kanta izan da. Ondoren, ez dago hori jotzeko ohiturarik.

J.E.: Ansorenak egindako txistu-liburuaren lehen pieza da "Uso xuria errazu".

A.J.: Gaur egun liburu horiek osatuago daude, eta ez dut uste kantua agertuko denik.

Taldearen hastapenei buruz mintzatuta, ezin aipatu gabe utzi Txanbolin familia. Zein lotura du bandarekin?

J.E.: Mutil-kozkorra nintzela, eskolaren ondoren, solfeora joaten nintzen. Plazan ginela, udaletxean zegoen argi bat piztean, "piztu dik, piztu dik!", genioen, eta korrika joaten ginen gora, solfeo ikastera. Hantxe zegoen Juanito Txanbolin, "Mister Txanbolin". Familia osoari Txanbolin deitzen genion. Bandako partaidea zen bera eta gure txistuko irakaslea. Solfeoa erakusten zigun, eta maila zenuela ikusiz gero, bandara eramaten zintuen. Haren omenez jarri genion Txanbolin Txistulari Banda.

Urteak joan, urteak etorri, txistua "beste maila batera igo" duzuela zioen taldeak aurtengo Sanmieletan, txupinazoan. Zein da maila hori?

J.E.: Garai batean, Hernaniko irakasleak joaten ziren Urnietara. Bada, hemendik eta hemengoentzat talde propioa osatzea lortu genuen. Geroztik, harreman handia izan dugu beraiekin.

A.J.: Tradizioa du txistuak Euskal Herrian, eta, Urnietan, lehenagotik ere, txistulariak egon direla jakin badakigu. Baina etena egon zen, eta orduan sartu ginen gu.

J.E.: On Jose Inazio apaizak ere lan handia egin zuen. Bere etxean hartu ninduen apopilo, Urnietara iristean. Ttun-ttunak zituen ganbaran, eta txistu zaharren bat edo beste, ere bai. Hori horrela, horiek erabili genituen kalera lehenengoz atera ginen horretan. Elizondo eskolan egiten genituen entseguak, gora eta behera korridorean. Jakintza? Hutsa. Animoak? Hamaika. Gogoan dut, nola jendeak baloitik dirua botatzen zigun,

beren etxe paretik igarotzean. Santa eskea zirudien!

A.J.: Oso jende gutxi jarraitu zuen txistuarekin, hasierako lehen talde horretatik: Luis Mari Zaldua, Iñaki Moran, Justo eta laurok, hain justu ere. Donostian, musika-ikasketak egiten hastean, Egaña eta biok klaseak ematen hasi ginen. Hamar bat ikasle genituen, eta astero-astero klaseak. Hori izan zen Txanbolin hasiera, alegia, guk ikasi genuen hori irakasten hasi ginenean. Era berean, Musika Eskolan, solfeo-klaseak jasotzen zituzten.

J.E.: Gutxi batzuk kontserbatorioan hasi ziren.

Urnietako beste makina bat eragilerekin ere izan zarete elkarlanean, herriko kultur ondarea aberasteko ahaleginean: Egape Dantza Taldea, Anabasa, Kantazaun... Horietatik guztietatik ere edan al du Txanbolin bere bidean?

A.J.: Musikalki Urnietak ez du aukera handirik izan. Musika Eskolak pauso bat eman behar du aurrera, indarra hartu. Ondoko herriei erreparatuta, makina bat musikari da. Irakasle oso onak ditugu, baina pauso hori eman beharra dago. Herri-tarrek, musika ikasteaz gain, aukera eduki dezaten bidea egiteko.

Eragileei dagokionez, guretzat oso aberatsa izan da Edu Muruamendiarekin elkarlanean aritzea. Izan ere, asko eskatu diogu elkarri. Hartu-eman oso estua izan dugu. Sorkuntzara bultzatu digu, besteak beste. Urtean behin, kontzertu bat antolatzen genuen, kontzertu herrikoia. Herri askotan egiten zen hitzordua da, baina beti ziren Ansorenaren partiturak, baita abesti berdinak ere. Beste zerbait egin nahi genuen. Bada, oso garrantzitsua izan zen Muruamendiarekin. Musikalki, beste formatu bat lantzen hasi ginen. Metalezko boskotea hautsi (tronpeta, tronpa, tuba...) eta akordeoia sartu genion, baxua, gitarra, txistua... Probinziak egiten hasi ginen: lurralde bakoitzeko kantak interpretatu genituen. Ez genuen partiturarik, beraz, moldatu egin genituen. Behin hori eginda, gure begirada Urnietara gerturatzea erabaki genuen. Luis Mari Zalduak herriko historiari buruzko kontaketa egiteko proposamena luzatu zuen. Horrela sortu zen *Marizulo*.

Marizulo (2009) obraren ondoren ere beste bi antzerki musikatu egin

zenituzten, Urnietaren historiari keinu egiteko; hain justu ere: Urnietara 59 (2011), eta 1936 (2013), harreman estuaren erakusle.

A.J.: Konposizioak egiteko, Joxean Goikotxearengana jo genuen. Berak ezin zuenez, Aitor Amegarekin ipini gintuen harremanetan. Bere eskutik jaio zen *Marizulo* pieza, adibidez. Ondoregoetan guk egin genituen pieza musikalak. Herritar askok hartu zuten parte hiru obretan. Dantzetan gidari, Edu Muruamendiarekin. Musikan, gu, antzerkian Mikel Agirregomezkorta... Gogoan dut nola gonbidatu genuen Xabier Lete bera *Marizulo* ikusterat. "Asmatu egin dek", zioen. **Bestalde, begirada estetiko batetik erreparatu zenioten Urnietari, doinu eta dantzaz, 2019an, Soinuen begiradak emanaldiarekin.**

A.J.: Urnietako txokoei tokia egiteko ilusioa nuen. Pieza kantatuek zein dantzatuek osatzen zuten obra. Bestalde, Adarremendin egon naiz orain gutxi ikasleekin. Sanson harrira iritsi ginenean, askok zioten "Begira, Sanson harri! Gure dantza!". Alegia, beraiek tokia bera, historiagatik baino, dantzatzen dutelako ezagutu zuten. Hala, pedagogia-lana ere egin dugulakoan nago, nahi gabe. Ekarpina egin nahi izan diogu herriari, gure mailan, ez bakarra goi mailako musikariak. Beti izango da aberasgarria Urnietari kultur ekarpina egitea.

Aire garaikideko doinuetan txertatu izan duzue, maiz, txistuaren izaera tradizionala. Nola uztartu hori?

A.J.: Anabas taldea sortu genuen, eta bakarra nintzen Txanbolin Txistulari Bandatik. Kutsu tradizionalako piezak interpreta-tzeaz gain, izaera garaikideagoa duten piezak interpretatu izan ditugu. Kantatuak ez ziren piezetan, txistua edo txirula sartzen genuen.

J.E.: Oso gustuko dut txistua Urnietatik kanpo ere jotzea. Hernaniko kaleetan, esaterako, beste sonoritate bat du. Bergarara joan ginen, behin, eta ttuntuna eraman nuen. Elizan ginela, organoa jotzen hasi ziren.

"BETI IZANGO DA ABERASGARRIA URNIETARI KULTUR EKARPENA EGITEA"

Hala, nire ttun-ttunak soinu berezia ateratzen zuen, dardaragatik.

Askotariko belaunaldiek osatzen duzue Txanbolin Txistulari Banda. Zertan da aberasgarria?

A.J.: Urteak daramagu ikasle berriak hartzen. Denbora luze daramat horretan, eta oso nekatuta nago. Eskertuko nuke beste pertsonak batek hartzea ardura hori. Baina, bai aberasgarria hori da, Txanbolin kimu berriak edukitzea.

J.E.: Bilobarekin batera jotzeko aukera dut nik. Oso gustuko dut.

50 urtean aldatu egin zarete. Hari horri tiraka, Danbolin ere zertan ikusten duzue itxuraldatuta?

A.J.: Garai batean, joan-etorrian ibiltzen zen jendea. Egun gaudenak nahiko finko gaudela esango nuke. Harreman polita dugu eta balio handia du horrek guretzat.

J.E.: Kuadrilla bat gara, txistua jotzen. Ikasketa ederra izan da Txanbolin mende erdiko ibilbidea.

Hori guztia ospatzeko omenaldia prestatu duzue asteburu honetan.

A.J.: Hiru egun hartuko ditu guztira omenaldiak. Ostiralean,

kantua izango da nagusi. Lehen hitzordua eguerdiko 15:00etan izango da, Egape Ikastolako ikasle-leen eskutik. Ondoren, kantujira egongo da, Kantazaun taldearekin. Azken horientzat abesti tradizionalagoak jarri ditugu; aldiz, haurrentzat, gaur egungo melodia ezagunak. Bi horiek uztartzea oso polita izango da.

Larunbatean, kontzertua egongo da. Urtarrilean hasi nintzen partiturak prestatzen. Lan luzea eta gogorra izan da, baina eragile askok hartuko dute parte: askotariko zereginetan, 180 pertsona inguru ariko gara, gutxi gorabehera. Igandean, aldiz, Euskal Herriko txistulariei dei egin diegu, gurera etor daitezten. **Anbiziotsua izan da Txanbolin Txistulari Bandaren orain arteko mende erdiko ibilbidea. Horrelakoa ere izango al da aurrerantzean?**

A.J.: Ez daukat arazorik Txanbolin ikasturteroko jardunari eusteko eta festetako kontzertua egiteko. Baina *Soinuen begiradak* obraren pareko zerbait egiteko lan handia egin behar da, eta, jada, ez nago prest horretarako. Zoragarria izango litzateke beste norbaitek hartzea lekukoa.



Txanbolin Txistulari Bandaren berrogeita hamar urteak, irudi bidez



Justo Egañaren gidaritzapean, Urnietako hainbat txistulari, 1973an. URNIETAKO UDAL AGIRITEGIA



Marizulo, Urnieta'59 eta 1936 herri ikuskizunetan zeresan handia izan zuen Antton Jauregik. TXANBOLIN



lñistor jaietan, Justo Egaña omendu zuen lñistorra euskara taldeak. TXANBOLIN



Anne Elustondo eta Irati de Torres, belaunaldi gaztea Txanbolin Txistulari Bandan. TXANBOLIN

ADIERAZPENA

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA 2023KO URRIAREN 17AN EGINDAKO ADIERAZPENA

Oldarraldiaren aurrean, euskararekin eta euskaraz bat egitera goaz

Jakin dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren aurkako ebazpena eman duela. 2016ko Udal Legea garatzen zuen dekretuaren kontrakoa, hain zuzen. Epailak 9.2, 11.1 eta 12 artikulua osorik eta 18, 24, 27 eta 36 artikuluen zehaztasun atal baliogabetu dituzte.

Dudarik gabe larritasun handikoa da epai hau. Larritasun handikoa. Uztailean adierazi genuen Espainiako Konstituzio Auzitegiak EAEko Udal Legearen artikulua bat partzialki baliogabetuz emandako epai hark zuen larritasuna, eta hau nolabait haren ildokoa eta luzapen bat da.

Gogoratu beharra dago, Konstituzio Auzitegiak 6.2 artikulua soilik baliogabetu zuela eta bertako bi epaile ebazpenaren aurka agertu zirela, boto partikularra aurkeztuz, "orain arte eraikitako koofizialtasun erregimenarekin" bat ez zatorrelako eta aurreikusitako ezinezko ondorioak izan ditzakeen "doktrina aldaketa" bat suposatzen zuelako.

Larritasuna areagotzen du, hain zuzen ere, Udal Legearen garapen dekretua izanik erabat edo hein handi batean baliogabetzen dituelako udal eremuan une honetan aurrera eramanez daitezkeen euskararen normalizazioaren aldeko politika publikoak, euskararen sustapen politikak. Funtsean, ezartzen duen zoria da ez duela aintzat hartzen euskararen eta euskal hiztunen egoera minorizatua.

Azken sententzia honek ukatu egiten ditu euskararen normalizazioaren aldeko politika publikoak behar direnik edo egingarri direnik. Udal Legean eta garapen dekretuan herritar guztien eskubideak hartzen dira aintzat, eta hor proposatzen diren eta orain auzitegiak baliogabetu dituzten neurriekin inongo herritaren eskubideak ez dira kaltetzen, baizik eta euskararen normalizazioaren eta euskal hiztunen bizimodua normalizatzearen aldeko neurriak dira hartzen direnak. Politika publikoen egitekoetako bat hori da, beste hainbat arlotan ikusten dugun bezala: gutxiagotasun egoeretan dauden kolektibo eta egoerak zuzentzeko erabiltzen dira politika publiko horiek.

Botere judizialek hizkuntza-politika egiten jarraitzen dute, euskararen ofizialtasunaren ondorioak murriztuz eta herritarron eskubideen aurka. Izan ere, epai guzti hauek euskararen normalizaziorako bidea egitea posible denik ukatzen ari dira. Beraz, kezka eta oso arduratuta jaso dugu epaia. Zoritxarrez, argudio bat gehiago ematen digu datorren azaroaren 4an oldarraldi judizial hau salatzeko Euskalgintzaren Kontseiluak deituta Bilbon egingo den manifestaziorako deia berritzeko. Zoritxarrez diogu, nahiago genukeelako oldarraldiak etena izatea eta egiaz momentu honetan euskararen normalizazioak eta biziberritzeak honela -euskal hiztunek eta euskal hiztunen bizitza bizigarriek- behar dituzten horien noranzkoetan indarrak jartzea, eta ez epai hauen kontrako hesietan.

Azaroaren 4koa denok batera oldarraldi honi erantzun sendoa emateko

hitzordua izango da. Baina oldarraldi judiziala ez da posible oldarraldi politiko eta mediatiko baten zoru diskurtsiborik gabe. Bestalde, azpimarratzekoa da Eusko Legebiltzarrean adostasun oso handiz hartutako legea zela Udal Legea, eta ondorioz, haren garapena den baliogabetutako dekretu hau. Eta, Udal Legearekin ere aipatu genuen bezala, euskal gizartean oso ordezkaritza murrizta duen alderdi baten

bulkadaz bultzatu dela epai hau, eta beraz, adostasun sozial oso zabal baten aurkakoak direla. Beraz, azaroaren 4koa da gertatzen ari den honi etena eta hesia jartzeko modua.

Euskalgintzaren Kontseiluak elkartasun osoa helarazten die epaiak zuzenean kaltetutako udalerriei, UEMari eta bertako biztanleei. Halaber, Eusko Jaurlaritzaren

Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailari eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailari babesa agertzen diegu sententzia errekurritzeko.

Azkenik, irailaren 26an euskalgintzako ordezkariak esan genuen bezala, alderdi politikoei dei egiten diegu azaroaren 4an Bilbon egingo den manifestaziorarekin bat egitera. Oldarraldiaren aurrean, euskararekin eta euskaraz bat egitera.

MANIFESTAZIOA

AZAROAK 4
17:00
EUSKALDUNA
BILBO

OLDARRALDIAREN
AURREAN
EUSKARAREKIN
BAT
EUSKARAZ
BAT

ANDOINGO EUSKALGINTZAREN AGERRALDIA:
URRIAK 26, OSTEGUNA. 19:00, PLAZA MOREA.

ANDOAINDIK BILBORA BUS ZERBITZUA.
TXARTELAK SALGAI: AEK, AIURRI, ERNAITZA.



Herme Gonzalez PSE-EEko bozeramailea, San Juan plazan. AIURRI

“930 etxebizitza berri eraikiko dira herrian, salneurria murriztu asmoz”

HERME GONZALEZ URNIETAKO PSE-EE ALDERDIKO BOZERAMAILEA

Mende laurden darama udalgintzan, eta inork ez du berak baino hobe ezagutzen udal barruko funtzionamendua. Udal Gobernuan daude, legegintzaldi honetan, EAJ-PNVrekin

dako lehen harremanean, bi aldeek ikasi egin behar genuela elkarbizitzan, EAJ gehiengo osoko bi legegintzalditik zeto-rrelako, eta geu, PSE-EE, bi legegintzaldi horiek oposizioan egin ondoren. Txip hori aldatzea kosta egiten da batzuetan.

Bakarren batek esango du, nolatan izan zen zaila adostasuna, EAEn bi alderdiek paktu asko egin dituzuelako.

Bai, baina erakunde batetik bestera, herri batetik bestera ñabardura asko daude. EAJ alderdiko kideak ere ez dira lehen zeudenak, aldaketa de-zente egon dira, eta iraganean zeudenekin sortu ziren sestrak ahaztu egiten dira. Bi programak uztartu ditugu, eta biak garatzen saiatuko gara. Bide onetik goaz, komunikazioa ona da, eta in-formazioa ematen digute. Iraganean sarri faltan bota izan dugun egoera, bide batez. Gobernu akordioaren baitan ar-dura postu garrantzitsuak di-tugu. Consuelo Frutos zinegotzia Zerbitzu Sozial eta Jubilatuen sailtako presidentea da, eta ni Trantsizio Energetiko arloko arduraduna eta Bakea eta Elkarbizitza batzordeko presiden-tea. Bigarren alkate-ordea ere banaiz, eta Gobernu Batzordean ordezkartza daukagu.

Oposizioan eta Gobernuan egon zara. Non gusturago?

Beno, legegintzaldi honi buruz ezin dut iritzi jantzirik eman, hilabete eskasa baitaramagu lanean. Oso ezberdinak dira bata eta bestea. Orain gustura gaude, ondo egokituta. Uste nuen lan gehiago izango genuela egokitzen, baina azkar egokitu gara. Gure teknikoak ditugu alor ezberdi-netan, harreman ona beraiekin, eta gustura gaude.

Kanpotik itxura ematen du oposizioan egon izan zarenean gusturago sentitu zarela udalgintzan. Ados?

Beno, oposizioan hotz handia pasatzen da. Oposizioan geun-dela ekimenak bideratzen, ja-rre eraikitzailea erakusten saiatu gara, zer Urnieta nahi genuen garbi uzten. Orain, Go-bernuan nahiko deseroso sentitzen ari naiz batzorde eta plenoetan, horietara kontu guztiak lotuta eramatzen baitira, aurretik. Dena lotuta eramatzen duzunean, azalpenak ez dira hain sakonak izaten. Zirrikitu hori oposizioko kideen eskaeren baitan geratzen da, ez gure bai-tan.

Andoni Urbistondo URNIETA

Kafeina eta ke pixka bat dastatu nahi izan ditu Herme Gonzalez-ek Aiurriren galdera sorta erantzun aurretik (Ciudad Rodrigo, Salamanca, 62 urte). Aho bizarrrik gabe bota ditu, bota beharrekoak; honatx bilduma.

Urietan ezaguna zara, dagoeneko, baina aurkez ezazu zure burua.

Herme Gonzalez naiz, PSE-EE alderdiko zinegotzia Udalean. Hurrengo urteko ekainean 25 urte egingo ditut udalgintzan, eta udalbatzan eskarmentu gehien daukan zinegotzia naizela esango nuke.

Denetarik ezagutzen duzu, alkate-tza izan ezik: oposizioa, koalizio gobernua... Legegintzaldi honetan Gobernu akordioa adostu duzue EAJ alderdiarekin. Zer moduz joan dira lehen hilabeteak?

Nahiko ondo. Ez zen erraza izan adostasuna lortzea EAJrekin, irizpide ezberdinak ditugulako. Gai korapilatsuak albo batera utzi behar izan ditugu, adostasunaren mesedean. Jorge Segurado alkateari esan nion, izan-



Erabilpen gutxi duen udaletzeko gela handi batean egin zen elkarrizketa, astearte goizean. AIURRI

Deseroso diozunean, lotuta esan nahi duzu? Alegia, Gobernuan zaudela, eta ezin duzula kritiko izan...

Beno, oposizioan zaudenean askatasuna duzu nahi duzuna esateko, eta Gobernuan, aldiz, gauza batzuk jan egin behar dituzu, zuretzat gorde.

Ezin da dena kolpe bakarrean aldatu, eta guk daukagun ordezkariak daukagu: hamahiru zinegotzitik bi. Errespetu handia erakutsi didate PSE-EEK dituen bi alorrekin, eta autonomia handiz jarduten gara. Irizpide txokea handia bada, esan egiten diogu elkarri, zailtzarrik ez.

Zein helburu du PSE-EE alderdiak legegintzaldi honetan. Ze eronka ditu Urnietak?

Gobernu akordioan jasota daudenak, bi alderdi politikoen programak uztartuz. Guri dagozkionez, etxebizitzaren egoerak arduratzen gaitu gehien, eta asmoak, hauteskunde kanpainan esan genituenak: Urnieta politagoa egitea, parte hartzaileagoa. Lan handia daukagu aurretik, Urnieta logela herria delako. Zer pentsatua ematen digu deno hori halako gardentasuna

"GAZTE JENDEA UDALERRIAN MANTENTZEA ZAILA DA HERRIA HANDITZEN EZ BADA"

rekin esatea, baina hala da. Herrira bizitzera etortzen direnak herriko dinamikan gehiago murgiltzeko ahalegina egin behar dugu, denon artean.

Eta nola lortzen da hori? Kanpotik, sentsazioa, Urnietan etxebizitzak oso garesti daudela da, asko Donostia eta inguruko herrietako jendeak erosten dituela. Ados zaudete?

Bai, baina Udalak ezin du gauza handirik egin alor horretan. Promozio publikoa egitea litzateke aukera, baina udal gutxik egiten dute halakorik. PGOU edo Hiri-Antolamenduko Plan-gintza Orokorren bitartez kontrolatzen da egoera hori, egiten diren etxe guztiek modu jakin batean banatu behar direla agintzen baitu: %33 publikoak, %33 kontzertatu edo tasatuak, eta azken herena etxebizitza librea. Hori esanda, egia da etxebizitza Urnietan oso garestia dela, bai.

310.000 euro balio du 70 metro koadroko etxe libre berri batek, lehen solairua. Zein iritzi duzu?

Oso garestia dela. Nire ustez arazoa urrutitik dator. Ez da etxebizitza berririk eraiki urte luzetan herrian, Trankatx alde-dera egin ziren 23 etxebizitza horiek salbu, eta herriko gazte askok inguruko beste herrietara joan behar izan zuten bizitzera ezinbestean. 2017an Urnietako 140 lagun lekuz aldatu ziren, etxebizitza erosteko aukerarik gabe.

Datu potoloa da oso. Egun bukatu berri da hirigintza proiektu bat, Ermotegikoa, eta beste bi garatzeko zain daude: Babilonia, ikastola atzean, 430 etxebizitzarekin, eta Azkarate, Salesiar ikastetxeko belazeetan, beste 500 etxebizitza. Nire ustez eskaintza handitzeak etxebizitzen salneurria murriztuko luke, eta ea hala gertatzen den.

Donostia hiriburutik 12 kilometrorako egotearen zehar kaltea ere aintzat hartzeko modukoa da, ezta?

Baita, baina etxebizitza eskaintzarik ez egotea garrantzitsuagoa izan da nire ustez, prezio garestietan.

Bi etxebizitza promozio horiek bukatu ostean Urnieta 8.000, 9.000 laguneko herria izango da, agian. 2.500 laguneko herria ezagutu genuenok herri txikiagoarekin gusturago ote geunden...

Herri txiki bat bere horretan mantentzea zaila da. Gazte jendea udalerrian mantentzea zaila da herria handitzen ez bada, zerbitzu onak ematen ez badizkiozu. Etxebizitza berriak eraikitzea derrigorrezkoa da.

Diotenez, Urnieta herri perfektua bilakatu omen da familia bat sortu

"EZ DA ETXEBIZITZA BERRIRIK ERAIKI URTE LUZETAN, GURE HERRIAN"

nahi duten bikote gazteentzat. Ados al zaudete?

Bai. Zerbitzu onak ditu, hiru eskola, garraio publiko sare aberatsa... Gure erronka Urnietara familia bat sortzera etortzen diren bikote gazte horiek herriko egunerokoan gehiago murgiltzea da, ez daitezela lo egitera mugatu.

25 urte daramatzazu udalgintzan, lau urteko eten bat tartean, Aldundian aritu zinelako lanean. Ze oroitzapen?

Buf, denetik pasa dugu. Alkate asko pasa dira nire begien aurretik. Hasi nintzenean bakarrik hasi nintzen, eta galdu samar sentitu nintzen, eskarmenturik gabe. Kosta zitzaidan jardunari neurria hartzea. Behin hartuta, EAJk zeraman politika salatzen saiatu ginen, eta zinegotzi bakarra izatetik bi, hiru eta bostera pasa ginen, ezker abertzaleko alderdia legez kanpo utzi zutenean. Azken hiru legegintzaldiak bi zinegotzirekin egin ditugu, eta babesa ematen digun herritar multzo polita daukagula sentitzen dugu.

Alkate izateko aukerarik izan duzu noizbait?

2007an. Orduan UDA Urnieta Denon Artean plataforma sortu zen, eta EAJk zigor handia hartu zuen. 3 zinegotzi baino ez zituzten lortu, sinestezina Urnietan, eta hainbat azpikeria politiken erruz. UDAk PSE-EEK baino 30 bozka gehiago lortu zituen, eta lau zinegotzi haien artean eta guretzat. Mugan geratu ginen, eta UDAk hartu zuen alkatetza. Mingarria izan zen, lan bikaina egin genuela uste baitut, alkatetza lortzeko. Herritarrek EAJrekin zuten haserre UDA plataformari bozkatuz gauzatu zuten. Herriak aldaketa nahi zuela garbi geratu zen, baina aldaketa hori PSE-EE alderdiak gidatzea ere akaso askotxo izango litzateke.

Saiatu zinen alkate izateko babesak lortzen?

Bai, EAJrekin hitz egin genuen, Gobernu akordioa egitea posible ote zen jakiteko, baina jakina, guk asko zigortu genituen aurreko legegintzaldian, euren azpikeria, amarru politika batez ere, eta ezezkoa eman ziguten. Herriak oposizioa bidali zituela, eta han geratuko zirela erantzun ziguten. UDArekin ere saiatu ginen, akordioaren batera iristen, baina ezinezkoa izan zen. Hurbiltzerik txikiena ere ez zen egon.

Hainbat alkate ezagutu dituzu.

Bai, Joxi eta Maixa Lizeaga, Florentino Ugalde, Mikel Pagola eta Jorge Segurado, horiek guztiak EAJkoak, eta Mikel Izagirre UDA plataformakoa.

Bakoitzaren hitz batzuk esatera ausartuko zinateke?

Joxi izan zen lehena, hasi nintzenean. Gutxietsi egin gintuztela esango nuke. Ustezko ustelkeri asko izan zen garai haietan, ustezko hitza azpimarratuz. Salatu genuen politika hura, eta ez ziguten barkatu. Joxik kargua utzi zuen, Madrilgo Senatura zihoalako, baina gure ustez arrazoiak beste batzuk izan ziren. Maixa Lizeaga jarri zen alkate, bi urte eskas. Anaiaren ildotik jarraitu zuen, eta kasu honetan baieztatu dezakegu legez kanpoko jarduna eduki zuela, geuk salatu eta epaile batek hala erabakita, Saletxeberriko etxeen aferan. Florentinorekin ondo, norabide aldaketa eman zion bere alderdiko politikari. Mikel Izagirrekin lortu zuen alkatetza ondoren. Izagirrekin tratua pertsonalean ondo moldatu nintzen, baina legegintzaldi arraroa izan zen. 13 zinegotzitik lau zituzten, eta horiekin gobernatu zuten. Legegintzaldi bukaeran hiru zinegotzirekin ere bai. Mikel Pagolarekin lehen legegintzaldian ondo moldatu ginen, ez zeukatelako gehiengo osorik. Elkarrizketa emankorra izan zen, baina traizionatuak sentitu ginen. EAJren aurrekontuak babestu genituen, lehen aldiz Urnietako historian, eta bake eta elkarbizitza prozesua ere abiatu zen, baina euren jarraera itsusia izan zen. Ondoren, gehiengo osoa izan zuten bi legegintzaldietan, eta horietan baztertu egin gintuzten. Mikel Pagolarekin harremana beti tentsio handikoa izan da.

Azken lau urteak Jorge Segurado, alkate. Zer moduz berarekin?

Jorgerekin ondo. EAJkoa izanda ere, duela lau urte esan nion pertsona bakoitza ezberdina dela. Kosta zitzaion karguari neurria hartzea, baina hartzen ari da. Noski, alderdi bateko kidea da, eta alderdiak erabakitzen duena errespetatu behar du, alderdi diziplina dagoelako. Tratua ona da berarekin, naturalagoa.

Oharra:

Elkarrizketak izango du 2. atala, gatazka politikoari eta elkarbizitzari loturikoa. Azaroan argitaratuko da, bigarren zati hori.

IRITZIA

IOSU PERALES ARRETXE ANDOAIN

Gaza, setiopean

Gazako herritarren aurkako kanpaina militar sionista zigorgabetasunezko nazioarteko esparru batean burutzen ari da. Harrigarria izan liteke, ohitura ez balitz. Sarraskia hain da arrazoigabea, ezen ahots batzuek akatsez hitz egiten baitute. Noiz arte jarraituko dute izugarrikeriei akats deitzen? Basakerian lehiatzen diren politikari sionisten helburu nagusia Gazako eremua zen aspalditik, basatiago nor den erakutsiz. Ekintza kriminal eta koldarra da bi milioi biztanle baino gehiagoko herria bonbardatzea, setiatuta, mugak itxita.

Dakigunez, armada sionista edozein unetan sar daiteke Gazako eremuan erabateko suntsiketa eragiteko. Mehatxu apokaliptiko baten izupean bizitako itxaronaldia da, nazioarteko zuzenbide humanitarioa defendatzen duela dioen mendebaldearen begirada hipokritaren aurrean, palestinarren eskubide politikoak ukatzen jarraitzen duen bitartean. Hala ere, egia da Nazio Batuen Erakundea aho txikiz esaten ari dela egunotan bi estaturen irtenbidea funtsezkoa dela bake iraunkorra lortzeko.

Hamaika hildako eta zauritu izan da Israelen eta Gazan, zigorgabetasun kezkarariaren erdian. Egia da juduen aurkako jazarpena ohikoa izan zela mendeetan European. Auschwitzek ikara eragin zuen Alemaniaren kontzientzian, eta, orain, palestinarren genozidioa ontzat ematea erabaki du. Alemania gaixoa! "Lehen beste alemaniar batzuek juduak hil zituzten bezala, orain beste judu batzuek palestinarrek hiltzea justifikatu behar dugu", esan zuen Angela Merkel andereak. Maila berean dago Amerikako Estatu Batuen erreakzioa, bere txandakako Administrazioak bere sustrai moralak Iraken edo Sirian

eragindako operazio kriminalen lohian hondoratzen dituen bitartean. Israelen konplizitatearekin batera. Beren historian dago portaera gerrazalea eta giza eskubideen urraketa.

Europar Batasunak, kanpo-politikarik gabe eta batasunik gabe, komunikatu salomonikoak igortzen ditu, Israelen arnasa har dezan eta Palestinako herria apur bat gehiago hil dadin. Zeinen azkar ahazten den nor den okupatzailea eta nor okupatua, indarkeriazko eszenatoki bat bakarrik aipatzeko! Europako gobernuetan, konplexu ideologikoa erakustez gain, negozioak egiteari eta sionismoa eusteari lehentasuna ematen zaio. Giza eskubideen kaltetan.

Egia da Hamasen jokabideak arbuizatzeko modukoa izan behar duela. Ez dago inolako zilegitasunik jaurtitzen dituen suziriak justifikatzeko, horrek sionistak sumintzea eragingo dutela jakinda. Are gehiago, bonbardaketek errugabeen heriotza eragiten badu.

Ez da nahikoa herri itxi, enbargatu eta zigortu baten erresistentzia-eskubidea argudiotzat erabiltzea biktima zibilen areagotzea ontzat emateko. Baina, gainera, Hamasek gobernu arabiarren adierazpen gisa jotzen du palestinarren eta israeldarren arteko gatazkan eta, are

gehiago, Gazako herritarren sufrimendua barne arazoak desbideratzeko eta nazioarteko diplomaziarako erabiltzeko.

Hamasen ekintza gaitzesten dut, koheteak herritar zibilen aurka jaurtitzegatik eta benetako bake-prozesua nahi ez dutenek maneatutako tresna gisa jarduteagatik.

Hau esanda, Gazan gertatzen ari denaren errua Hamasi egozteko historiako desitxuratze abusu argia da. Potentzia okupatzailea da muturreko indarkeria, bazterketa sistematikoa eta, zigor kolektiboak erabiliz, Palestina historikoa kolonizatzen ari dena. Israel etnizista handi bat eraikitzeko. Israel da biztanleria zibila bonbardatzen ari dena, nazioarteko zuzenbide humanitarioa modu miserikordean urratuz. Israel da Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 46 gomendiori entzungor egin diena. Israel da NBeko Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak urratzen dituen, 1967ko mugetara itzultzeari, errefuxiatu palestinarren itzulerari eta Jerusalem estatuari dagokionez. Israel da Hagako Nazioarteko Auzitegiak Zisjordanian sakabanatu eta isolatu duen apartheid harresiaren aurka emandako epaia atzera bota duena.

Israeldarrak beren burua defendatzen duten abertzaleak eta palestinarrek erasotzen duten terroristak direla esatea errealitatea faltsutzea da. Ez da lurraldeen arteko gatazka hutsa. Indar okupatzaile kolonizatzailearen arazoa da, bere eskubideei uko ez egiteko asmoa agertzen duen herri baten aurkakoa. Kontua da horrelako gauzak esaten dituzunean, antisemita deitzeko arriskua daukazula. Antisemitak al dira nire lagun juduak, sionistak ez direnak, eta haien izenean egiten denarekin izututa daudenak? Ez al dira semitak arabiarrek berak? Zer dela eta juduen joera hori semiten kategoria eskusiboki esleitzeko? Ez, kontua ez da antisemitak izatea. Justiziaz ari gara, egiaz. Zer espero dezakegu Gazako sarraskiaz? Bake prozesu berri baten aroaren hasiera? Tamalez, populazio bat kontzentrazio-esparru batean gordetzen baduzu, ura eta elikagaiak kentzen badizkiezu eta argia moztzen badiezu; haien etxeak, soroak, eskolak eta zentro publikoak suntsitzen badituzu; beren etxeok, haurrak eta emakumeak hiltzen dituzten bonbekin erasotzen badiezu; eta ehunka eta ehunka bizitza osorako ezinduak uzten badituzu; azkenik, bizirik geratzen direnak amorruz eta haserrez beteta geratuko dira. Bizirik dirautenak erdi hilik,

erdi bizirik, giza-bonba bihurtzeko prest.

Egia esan, mendebaldea eta Europar Batasuna lanean ari dira abian den genozidioaren aurrean. Von der Leyen Europako Batzordeko presidentea giza eskubideak lurperatu ditu hilketa sionistaren gertaerak alde batera utzita: hildako palestinar adingabeak mila inguru dira. Auzitegi batera eraman beharko lukete gerra krimenen konplizitateagatik. Bateragarriak dira, palestinarrei ezarritako gerra honen salaketa eta milaka zibilen bizitza arriskuan jarri duen Hamasi kritika egitea.

Gaur SOS mezua kaleratu behar da adierazpen askatasunaren alde, Palestinako herriari elkartasuna ematearen alde. Europako herrialdeetan bandera eta zapi palestinarrek debekatzen ari dira. Jendea atxilotzen da sionismoaren aurka agertzeagatik. Baina elkartasunezko ahotsak gero eta gehiago ari dira elkartzeko, gatazkari amaiera emateko eta Palestinako herriaren eskubideak jorratuko dituen bake-mahaia irekitzeko eskatzeko. Gobernuen eta nazioarteko erakundearen gaitasunik eza ikusita, herritartasun unibertsal aktibo baten itxaropena baino ez zaigu geratzen. Giza balio unibertsalak deritzogun hori jokoan dago Gazan.



andoainDARRA
euskaraz

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



AIURRI

Palestinarren aldeko elkartasun agerraldiak

Urriaren 11n, Andoainean, eta urriaren 17an, Hernanin, udalerrri eta eskualde mailako elkarretaratzeak deitu zituzten. Andoaingoan, amaierako adierazpenean, honako eskaera egin zuten: "Palestinako herriaren eskubideak errespetatzea exijitzen dugu. Irtenbide bakarra

okupazioaren amaiera eta Palestinaren askatasuna dira. Guk gure herriaren askatasunagatik borrokatzen dugun bezala, zapalduak diren herriekiko elkartasuna antolatzen jarraituko dugu". Ekialde hurbileko gatazkaren ondorioz sortuko dira ekimen gehiago, datozen egunotan.




AIURRI



SALKIN

2.500 euroko bidaiaren irabazlea

Elena Mijangos del Campo erosleak Salkinen bidaia eskuratu du. Saria bi lagunentzako 2.500 euroko bidaia da, eta apirilaren 30a baino lehen baliatu beharko du sariaz. Iraileko Bezeroaren Astean aurkeztu zuen ekimena herriko merkatarien elkarteak, eta kanpainak iraun bitartean zeresana sortu da erosleen artean.



AIURRI

Ezbeharra Txistoki pasealekuan

Astelehen arratsaldean ezbeharra izan zen Txistoki pasealekuaren amaiera aldean, N1 errepidearen ondoan. Kamioi bat espaloira gehiegi gerturatu eta zeraman kargarekin oinezko bat eta lasterkari bat kolpatu zituen. Biak larrialdi zerbizuetara eraman zituzten. Haietako batek zauri larriak zituen, buruan. Zainketa berezien unitatean jarraitu zuen, hurrengo orduetan.



Muñoz jokalaririk ohia, Sanz Real Oviedo taldeko ordezkarria, Altuna eta Etxeberria EITB taldeko kazetariak Langarak futbol-zelaietan erakutsi ohi zuten jokaldietako baten irudia, atzean dutela. AIURRI

Langara, munduko goleatzaileen pare

Isidro Langara Galarraga goleatzaile mitikoaren inguruko mahai-ingurua egin zuten Basteron urriaren 10ean, Udalak, Euskaldunak eta Langara familiak elkarlanean antolatuta

Xabier Lasa ANDOAIN

Juan Carlos Etxeberria eta Naxari Altuna EITBko kazetariak eta Carlos Muñoz eta Miguel Sanz Real Oviedo taldeko ordezkariek hartu zuten hitza mahai-inguruan.

Lau hizlariak hizketan hasi aurretik, baina, Joxi Gaztañaga Euskaldunako ordezkariek eta Andoni Alvarez alkateak mintzaldi laburra egin zuten.

Gaztañagak entzuleei gogorazi zien mendeurreneko ospakizun sortaren azken ekitaldia zela mahai-ingurua, eta eskerrak eman zizkien urtean barrena, modu batera edo bestera, ospakizunen antolaketan aritu diren guztiei, edo parte-hartu dutenei.

Andoni Alvarez alkateak ere eskerren atalari heldu zion. Go-

gorazi zuten Langararen aldeko ekitaldien antolaketa aurreko legealdian jarri zela abian, eta Maider Lainez alkate ohiak eta Petri Romero kirol zinegotziak, Karmele Otaegi udal artxiboaren arduradunak eta Ixiar Olano kiroltetako udal teknikariak aitortza merezi zutela adierazi zuten. Isidro Langararen familiari luzatu zion eskertza, erakutsi duen eskuzabaltasunagatik.

Langararen ezagutza handiko hizlariak

Lau parte-hartzaileek Langararen figura ondo aztertuta daukatela erakutsi zuten solasaldian. Euren hitzartzeek argi utzi zuten Langararen gainean oraindik ere euskaldunok -eta andoaindarrok bereziki- daukagun ez-

jakintasuna, eta aldi berean, eta kontraste gisa, Oviedon nolako debozioa sentitzen duten jokalariekiko.

Etxeberriak aitortu zuten realzale amorratua izan dela gazte-gaztetatik, baina, Guerrero Langara familiako kide bat (geroztik bere emaztea den Junkal) ezagutu arte ez zuela Langararen berri zipitzik eduki, realzale eta gipuzkoar gehien-gehienaren antzera. "Detaile horrek asko adierazten du, eta ziurrenik, horregatik gaurko mahai-inguruarren zergatia".

Altunak, berriz, adierazi zuten bere aitonaaren kontakizun harri-garriekin ohartu zela Langararen egundoko balentriekin.

Kontrara, Real Oviedo ordezkatuz Basteroko mahai-inguruan

parte hartu zuten Miguel Sanz eta Carlos Muñozek gogorarazi zuten han Langara Jainkoaren pare daukatela.

Carlos Muñoz futbolari ohiak esan zuten askotan irabazi zuela Oviedoko jokalaririk goleatzailearen saria, Langararen izena zeramala sari horrek, eta beti andoaindarren eskutik jaso izan zuela. Muñozek Oviedon ez ezik, Bartzelonan, Atletico Madrilen, Herculesen, Eltxen eta Murtzian jokatu zuten. Espainiako selekzioan, berriz, zazpi partiduko jokatu zituen, eta zazpi gol sartu zituen.

Sanzek gehitu zuenez, berak, "Andoaingo jokalaririk hura gisa izan zuten umetan Langararen lehen aditza etxean, eta geroztik, "gazte nintzelarik, maiz ikusi izan nuen Oviedoko ligako lehen partiduetan ohorezko sarea egiten. Erritual bat zen hori han. Oviedon jokatu zuten lehen aroan (1930-1936), Espainiako futbolaren historian hizki larriz idazten den Aurrelari elektrikoen taldeko kide izan zen, Emilin "Casuco", Gallart eta Herreritarekin batera. Gaur egun ere, Oviedoko umeek ederki asko dakite Oviedoren aro loriatsua osatu zuten boskotea buruz izendatzen".

Egun, Miguel Sanz Oviedo taldeko ondare historikoko arduraduna da, eta dokumentazio

saila osatzen ari da Isidro Langara protagonista nagusia izaki.

Euskal selekzioko goleatzailea

Solasaldia gaztelaniaz gauzatu zuten zatirik gehiena, baina 1936ko gerraren baitan sortu zuten Euskal selekzioaren aro historikoa aztertzea egokitu zitzaizkionean, Etxeberriak eta Altunak euskarara jo zuten.

Altunak goitik behera aztertuta dauka Euskal Selektzioaren historia, eta batik bat, 36ko gerraren testuinguruan taldeak Bizkaian, Frantzian, Sobiet Batasunean, Txekoslovakian, Danimarkan, Norvegian, Kuban, Mexikon eta Argentinan jokatu zuten partiduko nazioartean eragin zuten aparteko ikusmina. Era horretan, datu jakingarriez jositako hitzartzea egin zuten Etxeberriak eta Altunak.

Mundu mailako goleatzaile historikoen pare

Datu estatistikoak eta pasadizo esanguratsuak tartekatuz, mundu mailako futbolaren historian goleatzaile onenen olinpoan jartzea merezi zuela azpimarratu zuten laukoteak. Eta egia esanda, ez zuten gehiegikeriarik adierazi.

Horrela, Isidro Langarak (1912-1992) futbolean egin zuten ibilbidea gainbegiratzeaz gain hainbat zehetasun kontatu zituzten entzugarria gertatu zen solasaldian.

Hain zuzen, honako taldeetan aritu zen Langara: Euskalduna (1924), Esperanza (1925-1929), Tolosa (1930), Oviedo (1930-1936 eta 1946-1948), Argentinako San Lorenzo (1939-1943) eta Mexikoko España (1943-1946), eta aparte, Espainiako estatuko (1932-1936) eta Euskadiko (1938-1939) selekzioekin jokatu zuten. "Golegilearen ikur bihurtu zen Europan eta Ameriketean", Etxeberriak ziurtatu zuenez.

Guztira, 508 golen egilea izan zen aipatutako lehen mailako talde horietan jokalaririk izan zen denboraldietan. Makina bat marka utzi zituen futbolaren historian, batzuk oraindik ondu ez direnak. Horien artean, aipatzeokoak dira: *pitxitxia*-ren titulua Mexiko, Argentina eta Espainiako ligetan; Espainiako ligan hiru partidetan segidan hiru gol sartu izana (hat-trick); Espainiako selekzioarekin, proportzioan, sekula baino gol gehien sartu izana 12 partidatan, 17 gol...



Nerea Arruti urnietarra, txapela jantzita. BARREN

Euskal Herriko Aizkora Txapelketako finalean, txapeldun

Elgoibarren nagusitasun handiz lortu zuen txapela Nerea Arruti urnietarrak

Erredakzioa URNIETA

Nerea Arruti urnietarrak 17 minutu eta 59 segundutan moztu zituen sei enbor; 36 ontzako bi, 45 ontzako bestia bi eta, amaitzeko, bi kana-erdiko. Ia lau minutu atera dizkio Arrutik Sorondori (21:54). Eta zortzi minutu Oihana Fernandez de Barrera hirugarren sailkatuari (25:10). Parekorik ez zuen izan

finalean, beraz, aise lortu zuen txapela. Aizkorarekin txapelketak garrantzitsuak eskuratu ditu honezkerok. Euskal Pentatloia irabaztea zer den ere badaki. Banaka eta binaka, bi modutara izan da txapelduna.

Sasoiko dago eta maila on hori herrian bertan erakutsi zuen, urrutira joan gabe, Xoxokako jaietan.



Irati Aranguren, hirugarren, podiumean. ANDOAINGO TXIRRINDULARI ESKOLA

Aranguren ziklo-krosean

Nazioarteko proba bikoitza jokatu zen Pontevedran, urriaren 7an eta 8an. Igandeko proban hirugarren helmugaratu zen. Bezperan, zorte txarra izan zuen. Nazioarteko proban, lehen postuetan zihoala, beste korrikalari batek atzetik jo eta aldagailua hautsi zion. Bizikleta aldatu bitartean, denbora galdu, eta hamazazpigarren postuan helmugaratu zen.

Xabat Zuriarrain ere ziklo-krosean ari da, Espainia aldean

Medina de Pomarren eta Villarcayon proba banatan parte hartu zuen Andoaingo txirrindulariak. 13. eta 17. postuan sailkatu zen, hurrenez hurren.

Buruntzaldea IKTn izena emateko aukera, zabalik

"Denboraldia hasi da jada eta izen ematea oraindik zabalik da, denboraldi berrian gurekin batera parte hartu dezan". Informazioa: buruntzaldeaikt.eus.

Euskalduna eta Urnieta Gorengo mailan

Gizonezkoen futbol taldeak Gorengo mailan ari dira, denboraldi honetan. Dagoeneko bost jardunaldi igaro dira, joerak zeintzu diren ikusteko argigarriak.

Urnieta lehen multzoan jokatzen ari da. Aurreko asteburuan berdinketa eskuratu zuen, etxean, Getariaren aurka (1-1). Sailkapenean, 14. postuan sailkatuta dago garaipen eta berdinketa banarekin eta hiru porrotekin. Asteburuan Touring B zelaian ariko da.

Euskalduna bigarren multzoan lehiatzen ari da. Danenaren zelaian berdinketa eskuratu da (3-3), zortzigarren postuan da sailkapenean. Bi garaipen, berdinketa bat eta bi porrot eskuratu ditu lehen bost jardunaldietan.

Emakumezkoetan, Urnieta gorengo mailan jokatzen ari da. Aurrekoan Aiztondoren aurka galdu zuen (2-1), eta asteburu honetan sailkapenaren zuloan dagoen Ilintxa taldea hartuko du Urnietan. Sailkapenean, 6. postuan da. 2 berdinketa lortu ditu lehen 4 partidatan. Bosgarrenean iritsiko al da garaipena!

Dominak mundu txapelketan

Andoaingo klubak, Tunisiatik bueltan, emaitzen berri eman du. Zortzi kide hara bertaratu ziren eta ia guztiek domina lortu zuten:

Aimar Perez eta Udane Garcia, urrezko domina Juho Enbu modalitatean proban, 18 urte azpikoen mailan. Perezek ere, urrezko domina lortu du Bogu randori modalitatean.

Aitor Garciak, zilarrezko domina Kata modalitatean, 12-17 urte azpikoen mailan eta zilarrezko domina Bogu randori modalitatean.

Angel Santiagok, brontzezko domina Bogu randori modalitatean, 16-17 urte arteko mailan.

Carlos Santiagok, brontzezko domina Kata modalitatean, 45 urtetik gorako mailan.

Zuhaitz Astarlozak, zilarrezko domina Randori modalitatean, 18 urtetik gorako mailan.



KABUTOKEN

Senior mailako Leizaran eta Urnieta eskubaloitza taldeak

Gipuzkoako gizonezkoen 1. Lurraldeko txapelketan laugarren jardunaldia iristear da. Leizaran taldeak, aurreko asteburuan, Allurralden berdinketa lortu zuen Soraluze taldearen aurka (30-30). Lehen bi jardunaldietan garaipena eskuratu zuen, eta denboraldi hasiera honetan 4. postuan sailkatuta dago. Asteburuan Arrasaten ariko dira.

Urnietak, zehazki, Arrasate gaintu zuen aurreko asteburuan (27-26). Denboraldiko lehen garaipena izan zen, eta horri esker sailkapenean 8. postuan dira. Asteburu honetan Eibarren aurka ariko dira.

Maila berean, emakumezkoetan, Urnietak bitik bi garaipen eskuratu ditu. Azkena, Aloñamendiren aurka (20-25). Euskadiko senior ligan, berriz, Leizaranek lehen garaipena lortu nahi du etxean.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 19

ANDOAIN Jabekuntza eskola
Elektrizitate lantegia.
17:00-20:00, *Urigain*.

ANDOAIN Erakusketa
"Argazkiak eta objektuak", Itxaso Mendiluzeren eskutik. Basteroren hogeigarren urteurrena ardatz hartuta.
Ohiko ordutegia, Bastero.

URNIETA Parte-hartze prozesua
2024ko aurrekontuko 150.000 euro zertara bideratu erabakitzeke parte-hartze prozesu berria martxan jarri du Urnietako Udalak.
Azken eguna: Azaroak 5.



URNIETA Bisitaldi gidatua

Ondarearen Europako Jardunaldietan, Jose Ramon Jauregi aizkoragilearen eskutik bisitaldi gidatua. Plaza mugatuak izango dira. Parte hartzeko deitu 943 00 80 00 zenbakira edo idatzi merkataritzaurnieta@urnieta.eus helbidera..

Urriak 28, larunbata. 10:00, Erratzu industrialdeko 1 zenbakia.

OSTIRALA 20

ANDOAIN Jabekuntza eskola
Klimateria: 40-60 urteen arteko emakumeen aldaketak aztergai izango dituzte.
17:00-19:00, *Urigain*.

LARUNBATA 21

ANDOAIN Batzarra
Burdinako kideen urteko batzarra. Karobia piztuko dute.
12:00, *Ortzaika karobia*.

ANDOAIN Kontzertua
Versos del Corazon bikotea zuzenean, Goikoplazan.
18:00-20:00, *Xarma*.

IGANDEA 22

ANDOAIN Dantza
"Gernika", Bilaka konpainia.
20:00, *Bastero*.

ASTEARTEA 24

ANDOAIN Parketarrak
Aisialdian euskararen erabilera bultzatu nahi duen ekimena.
17:15, *Goikoplaza*.

ANDOAIN Irakurketa kluba
2019an jaiotako haurrei zuzenduta, pheldu batekin hurbildu daitezke.
18:00, *Udal Liburutegia*.

ANDOAIN Ikastaroa

Erretzeari uzteko taldea osatu nahi du Osakidetzak. Andoaingo herritarrak Tolosako Anbulategiko jardueren gelako ikastarora joateko gonbidatu dituzte. Bost saio dira, urriaren 24aren eta abenduaren 5a bitarte.
13:30-15:00, *Tolosako Osasun Etxea*.

ASTEAZKENA 25

ANDOAIN Parketarrak
Aisialdian euskararen erabilera bultzatu nahi duen ekimena.
17:15, *Zumea plaza*.

LARUNBATA 28

URNIETA Jardunaldiak
Rol, estrategia eta simulazio jardunaldien edizio berria, Habitantes de Innsmouth elkarteak antolatuta. Larunbatean eta igandean, egun osoan Lekaion. Igandean, 12:00tan, erdi aroko eskrima erakustaldia plazan.
10:00-14:00 / 16:30-21:00, *Lekaio*.

ASTEARTEA 31


ANDOAIN Gau Beltza
Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eskutik, eta herriko eragile askorekin lankidetzan, ospakizun aparta: Txalaparta, antzezlan laburra, dantza emanaldia, txokolate-jatea, beldurraren pasabidea, kalejira, talo-jatea eta zezen suzkoa.
18:00, *Goikoplaza*.

URNIETA Gau Beltza
Salesiar ikastetxearen eskutik, ospakizuna Etxeberri plazatik San Juan plazara. Besteak beste, beldurrezko ipuin kontaketa, gaztain-jatea, txokolate-jatea eta "Ziria ala saria" jokoak.
18:30, *Etxeberri plaza*.

OSTIRALA 3

ANDOAIN Ospakizuna
Bastero Kulturgunearen 20. urteurreneko ekitaldi nagusia, herriko taldeen parte-hartzearekin.
19:00, *Bastero*.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


Cerrar los ojos
Lar, 21. 19:30.
Astl, 23. 19:30.

Sound of freedom
Lar, 28. 19:30,
22:00.

Ig, 29. 19:30.
Astl, 30. 19:30,
22:00.

Patrulla canina: La superpelicula
Lar, 28. 17:00.
Ig, 29. 17:00.

Lucky
Dokumentala.
Azaroak 1. 19:30.



SINOPSIS

**Cerrar los ojos**

Zuzendaria, gidoia: Víctor Erice, Michel Gaztambide. **Aktoreak:** Manolo Solo, Ana Torrent, Jose Coronado, Maria Leon, Josep Maria Pou... **Herrialdea:** Espainia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, haurtzarora. **Iraupena:** 169 min.

Victor Ericeren berriena

Espainiako aktore ospetsu bat, Julio Arenas, desagertu egingo da pelikula bat filmatzen ari diren bitartean. Haren gorpua inoiz aurkitu ez duten arren, poliziak ondorioztatu du itsasertzean istripu bat izan duela. Handik urte askotara, iraganeko misterioa biziberritzen da, aktorearen

irudia gogora ekarri nahi zuen telebista-saio baten emankizunaren ondoren. Parte hartu zuen azken eszenen irudiak eskaini zituen telebistak, Miguel Garay zuzendariaren lagun minak filmatutakoak. Victor Ericeren azken filma da, Donostiako Zinemaldian aurkeztu zutena.

SINOPSIS

La Patrulla Canina: La Superpelicula
Zuzendaria, gidoia: Cal Bruncker, Bob Barlen. **Herrialdea:** AEB (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Marrazki bizidunak, abentura. **Iraupena:** 88 min.

Zakur ezagunen abenturak

Meteorito magiko batek Abentura Hirian lur hartzen duenean, Txakur Patruilako txakurkumeak Txakurkume Boteretsuak bihurtzen dira! Skyerentzat, taldeko txikienarentzat, bere botere berriak egia bihurtutako ametsa dira. Baina gauzak korapilatu egiten dira Humdingerrek,

kartzelatik ihes egin berri duen txakurkumeen etsaiak, Victoria Vancerekin bat egiten duenean. Vance meteoritoekin obsesionatutako zientzia-burugabea da, eta superbotereak lapurtzeko eta superbilau bihurtzeko aliantza bat eratzen du Humdingerrekin batera.



Gobernu taldeak egin zuen ekimenaren aurkezpena. AIURRI

Abian da Urnietako Udalaren 'Parte Hartuz' ekimena

2024ko aurrekontutik 150.000 euro bideratuko dira Parte Hartuz ekimenera, beste urte batez

Erredakzioa URNIETA

Proposamenak jasotzeko epea azaroaren 5an amaituko da; urnietako herritar orok parte hartu ahal izango du, gutxienez, 16 urte edukiz gero. Proposamenen epea amaitu ondoren, Udal teknikariek horien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertuko dute. Azkenik, Udalak jakitera emango du liburuxka baten bitartez zein proposamen lehenetsi diren.

Proposamenak aurkeztu daitezke; besteak beste, hirigintzari, mantentze-lanei edota, oro har, udal jarduera-arloei zuzendurikoa. Parte hartzeko hainbat

aukera ahalbidetu ditu Udalak. Lekaion, kiroldegian, Saroben, Egape eta Magale ikastetxeetan jarritako kutxatan edota udalerrian barrena dauden postontzietan.

Informazio karpa

Urriaren 27an, 10:00-14:30 bitartean, Etxeberri plazan eta 17:00-20:00 artean San Juan plazan. Urriaren 28an, 10:00-14:30 artean kiroldegiaren kanpoaldean.

Gazteen parte-hartzea

Lanketa berezia egingo da Egapeco eta Magaleko LH6ko ikasleekin.



Lehen fasea amaituta, azaroan ekingo diote azken faseari. AIURRI

Partaidetzako aurrekontuen lehen fasea amaitu da, Andoainen

255 proposamen jaso dira, aurreko bi edizioetako 133 eta 141 proposamenak nabarmen gaindituz

Erredakzioa ANDOAIN

Jauzi kualitatiboa eman da aurren, herritarren aldetik jasotako proposamenei dagokionez. 133 izan ziren, 2021ean. 141, 2022an. Eta 255, 2023an. Informazio puntua jarri izanak eta gazteengana hurbiltzeak eragina izan duela ondorioztatu daiteke. Aurtengo kopurua balioan jarri behar da, gainera, lehen faseak beste edizioetan baino hamar egun gutxiago izan dituelako. Egun gutxiagotan askoz ekarpen gehiago iritsi dira, beraz, aurtengoan. Mekanika geroz eta ezagunagoa da. Hala izanik ere, eta parte-hartze handiagoa sustatu asmoz.

2023ko honetan bi berrikuntza ezarri dira. Alde batetik, informazio-puntua jarri da kalean. Hiru egun ezberdinetan, postua ipini zen eta dinamizatzaile lanetan dabilen Goiatz Salvador gaztea bertan izan zen. Eskuorriak banatu eta informazioa zabaldu du. Zalantzak argitzeko baliagarria izan da, kasu askotan. Eskaera betetzen lagungarria, beste kasu batzutan. Bigarren berrikuntza, 16-18 urteko gazteei loturik dago. Aurten, haien parte-hartzea aktibatu asmoz, tailer bana antolatu da hiru ikastetxeetako ikasgelatan.

Proposamen guztiak jaso eta erregistratu ondoren, balorazio teknikoaren garaia da. Azaroan azken aukeraketa egiteko aukera izango dute herritarrek. Abenduan itxiko da prozesua, eta aukeratutako proposamenak 2024ko Udal aurrekontuen partidatan txertatuko dira.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Zorionak Marivi eta Laida

Marivik urriaren 11an urteak bete zituen eta Laidak urriaren 16an beteko ditu 5 urte etxekoan partez txokolatzeko muxu haundi bat!



ANDOAIN

Ander Amondarain Portillo

Anderrek 8 urte bete ditu urriaren 17an. Han gongo marian gongo txiribiribigongo! Maitagarria zara! Etxekoak.

Urte askotarako!

- **www.aiurri.eus**
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:**
619 16 35 37.
- **Email:**
diseinua@aiurri.eus.
- **Bulegora etorri:**
Arantzibia plaza, 4-5, behea.
Andoain. 943 300 732.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

Bultza zure etorkizuna izarretarantz

...eta bidali iezaguzu zure curriculum, baldintzak betetzen badituzu Zientzia eta espazioa bezalako sektoreetan mundu mailako proiektuen buruan dagoen enpresa baten zati izan nahi duzu?

BULEGO KOMERTZIALERAKO INGENIARIA BILATZEN DUGU

Ingeniari Teknikoak edo Diseinu eta Fabrikazio Mekaniko Graduat bilatzen ditugu

ESKATZEN DUGUNA

Ingeniari teknikoak/goi mailakoa eta/edo fabrikazio mekanikoko diseinuko goi mailako gradua

- Planoak interpretatzeko gaitasuna
- Solid Works, Excel eta Solidedge menperatzea
- Hizkuntzak, ingelesa (beste hizkuntza batzuk baloratuko dira; euskara, frantsesa, ingelesa, alemana)
- Taldean lan egiteko gaitasuna

EGINKIZUNAK

- Merkataritza-taldeko kideei laguntzea
- Eskaintzak baloratzeko piezkatzeak egitea
- Soldadura-kordoiak kalkulatu
- Eskaintzak idaztea
- Eskaerak irekitzea, abiaraztea eta marbxan jartzea
- Hornitzaileen kontsultak
- Eskaintza konplexuak gidatzea eta prestatzea, gauzatu arte

ESKAITZEN DUGUNA

- Etengabe hazten ari den Europako galdaragintza liderreko kide izatea
- Zientzia, espazio eta energia sektoreetan mundu mailako proiektu paregabeak garatzea
- Ordainsari eta baldintza erakargarriak
- Lan-giro ona
- Garapen profesionala

Curriculumak, espero zaitugu:

<http://cadinox.com/lana1/>

cadinox



Urnietako
udala

ANDAINGO GAU BELTZA

URRIAK 31,
ASTEARTEA



18:15 Txalaparta, antzezlan laburra,
Urki dantza taldearen emanaldia.
Txokolate-jatea Goikoplazan,
Batzokiarekin lankidetzan.

19:15-20:00 "Akerrak okerrak"
kalejira. Ibilbidea: Goikoplaza,
Kale Nagusia, Zumea kalea,
Etxeberrieta.

19:15-20:30 Beldurraren pasabidea
Irunberri elkartean.

20:00 Talo-jatea, Etxeberrieta
plazan.

21:00 Zezen-suzkoa.
Lebiton konpartsako lagunekin
amaiera emango diogu jaiari.



TALOAK EROSTeko
TXARTELAK AIURRIN,
KEINUN ETA
URRATSEN SALGAI,
URRIAREN 23TIK
AURRERA.
PREZIOA 5 EURO

